

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

2389

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragar-tzen baita noiz argitaratuko den Enplegu Publikoaren Atarian Giza Baliabideen zuzendariaren 2024ko maiatzaren 2ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazio-ko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratudun langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko pro-zesuetan onartutako eta baztertutako langileen behin-behineko zerrenda onartzen duena, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2024ko martxoaren 5eko Aginduaren II. eranskinean adierazitako lanpostuetarako.

Bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde auto-nomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazio-ko zerbitzu laguntzaileen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen duen Erabakiarekin (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 24ko 53/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazio-ko zerbitzu laguntzaileetako enplegua fin-katzeko ezohiko prozesuetarako oinarri orokorren 6.2 apartatuarekin (oinarri horiek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Agindua-ren bidez onartu ziren), honako hau

EBAZTEN DUT:

Jakinaraztea 2024ko maiatzaren 20an argitaratuko dela Enplegu Publikoaren Atarian, <https://www.euskadi.eus/enplegu publikoa/> helbide elektronikoan, Giza Baliabideen zuzendariaren 2024ko maiatzaren 2ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazio-ko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratudun langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartzen duena, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2024ko martxoaren 5eko Aginduaren II. eranskinean adierazitako lanpostuetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 2a.

(Eskumenak eskuordetuta: Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak eskuordetuta; Agindua, 2024ko urtarrilaren 23koa, zenbait eskumen gauzatzea Segur-tasun Saileko Giza Baliabideen zuzendariari eskuordetzen diona. 2024-02-02ko EHAA).

Giza Baliabideen zuzendaria,
IZASKUN URIEN AZPITARTE.